Código de validación/*Balidazio kodea*
4F50065K4G013B1J11G7

***UDALBATZARRAK 2020KO MAIATZAREN 07AN EGINDAKO EZOHIKOA BILKURAREN HARTUTAKO ERABAKIAK***

**ACUERDOS DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DE LA CORPORACIÓN EL DÍA 07 DE MAYO DE 2020**

| Asistentes/*Etorritakoak* |
|---|
| **ALCALDE/*ALKATEA*** |
| JUAN CARLOS ABASCAL CANDÁS |
| **CONCEJALES/*ZINEGOTZIAK*** |
| PEDRO GALLEGO MONTEIRO<br>RICARDO MARTÍN LÓPEZ<br>MIGUEL LEDESMA PIÑEIRO<br>PAUL YARZA AGIRREGOMEZKORTA<br>CARMEN MARIA DEL RÍO CABRERO<br>JOL GUISASOLA GARAY<br>ARRITOKIETA ARAIZTEGI ARRIZABALAGA<br>SILVIA SERRANO GÓMEZ<br>JOSE MANUEL LÓPEZ CONDE<br>FRANCISCO JAVIER SÁNCHEZ GÓMEZ<br>MARIA URIONAGUENA ARANSOLO<br>JULEN DOMÍNGUEZ SÁNCHEZ<br>ROSA MARÍA CID SEARA<br>BEATRIZ GÁMIZ MATA |
| **SECRETARIA/*IDAZKARIA*** |
| DANIEL SALAZAR IRUSTA |
| **DIRECTORA/*ZUZENDARIA*** |
| ROSALÍA HERRERA YUSTE |

| Ausentes/*Etorri ez direnak* |
|---|
| JOANNA DÍAZ BENITO<br>ALBERTO GARCÍA ABAD SÁNCHEZ |

*Bitarteko telematikoen bidez, alarma-egoera dela-eta, 2020ko maiatzaren 07an 11:00)n, orrialdearen hasieran adierazten diren Udaleko kideak lehenengo deialdian*

A través de medios telemáticos debido a la situación del estado de alarma, a las 11:00 del día 07 de mayo de 2020, en primera convocatoria, se reúnen los/as

*bildu dira, Ezohikoa bilkuran.*

miembros de la Corporación antes citados/as, en sesión Extraordinaria .

*Idazkariak bilera hasteko behar besteko quoruma dagoela frogatu ondoren, Alkateak bilkurari hasiera eman dio eta publikoa dela adierazi du. Jarraian gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin dio.*

Una vez comprobada por el Secretario la existencia de quórum necesario para poder iniciar la sesión, el Alcalde abre la misma y la declara pública. Seguidamente se procede a tratar los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1. ***BILKURAN DAUDEN PERTSONEI EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO EDOZEIN GAIREKIN ZERIKUSIA DUEN EDOZER GAUZA GARRANTZITSU JAKITERA EMATEKO ALKATEAREN GONBIDAPENA***

1. **INVITACIÓN A LAS PERSONAS ASISTENTES A QUE COMUNIQUEN CUALQUIER INTERÉS RELEVANTE QUE PUDIERA EXISTIR EN RELACIÓN CON CUALQUIERA DE LOS ASUNTOS INCLUIDOS EN EL ORDEN DEL DÍA DE LA SESIÓN**

*Bilkuran dauden pertsonei eguneko gai-zerrendako edozein gairekin lotutako edozein interes zuzen eta garrantzitsu jakitera emateko alkateak egin dien gonbidapenari pertsona horiek erantzun diote ez dela beraiengan gertatzen abstenitzera behartzen duen inolako arrazoirik.*

*Bilkura publikoa da eta herritarrei irekia.*

A la invitación del Alcalde para que las personas asistentes a esta sesión comuniquen si tienen un interés relevante en relación con cualquiera de los asuntos incluidos en el orden del día, responden que no concurre en ellas causa alguna que les obligue abstenerse.

La sesión es pública y abierta a la ciudadanía.

2. ***2020/03/09AN EGINIKO BILKURAREN AKTA ONESTEA***

2. **APROBAR EL ACTA DE FECHA 09/03/2020**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 2* | EH Bildu: A favor 2 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |

| *BOZKETAREN EMAITZA* | RESULTADO DE LA VOTACIÓN |
|---|---|
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 1* | Elkarrekin Ermua: A favor 1 |

***Lehenengo erabakia:***

***"2020/03/09an eginiko bilkuraren akta onestea, Toki-erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Lege-erregimenari buruzko Araudiaren 36. artikuluan eta Udal Organoen Erregelamenduaren 43.ean ezarritakoari jarraituz".***

**Primer acuerdo:**

**"Aprobar el acta de la sesión celebrada en fecha 09/03/2020, conforme a lo preceptuado en los artículos 36 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y 43 del Reglamento orgánico propio de la Corporación".**

***3. 2020RAKO LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA***

**3. MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO 2020**

| *BOZKETAREN EMAITZA* | RESULTADO DE LA VOTACIÓN |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 2* | EH Bildu: A favor 2 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 1* | Elkarrekin Ermua: A favor 1 |

***Bigarren erabakia:***

***“Kontutan izanik administrazio publikoak, bere autonomiaz eta autogobernuaz baliatuz, giza-baliabideak antolatzeko daukan bitarteko teknikoa LPZ dela eta zerbitzu publikoa emateak dakartzan beharretara egokitu behar duela, LPZk egungo beharrei ezezik korporazio bakoitzak egiaz dituen***

**Segundo acuerdo:**

**“Considerando que la RPT es el instrumento técnico al servicio de la Administración Pública para la organización efectiva de sus recursos humanos en el uso que pueda hacer de su autonomía y autogobierno, debiendo adaptarla a las necesidades que le exige la prestación efectiva de sus servicios**

*beharrei ere erantzun behar die.*

**públicos, aquella tiene que responder a necesidades no solo actuales sino reales de la propia Corporación.**

*Moldaketa-prozesu horrek aukera ematen dio toki-korporazioari LPZ aldatzeko, horrek zerbitzu publikoak eraginkortasunez eman beharrak dakartzan eskakizunei erantzuten ez dienean. LPZk tresna dinamikoa behar du izan, ez estatikoa edo moldakaitza, eta dinamismo eta moldakortasun hori Konstituzioak toki-autonomiari emaniko garantien aukera zabalean babesturik daude.*

**Este proceso adaptativo exige la posible modificación por la Corporación Local de la RPT cuando no responda a las exigencias que le impone el deber de una prestación eficiente de los servicios públicos, debiendo convertirse en un instrumento dinámico y no estático o pétreo; dinamismo y adaptación que se hallan amparadas por el arco de la garantía constitucional de la autonomía local.**

*Hala ere, administrazioaren egiazko beharrei erantzuteko tresna behar duela izan jakinik eta, ondorioz, aldagarria, egungo arauen markoa aztertu beharra dago, zeren eta hori zatituta eta toki bakarrean bilduta egon ez arren, legezko arau-multzo bat dago horri buruz, bete beharrekoa dena.*

**Ahora bien, siendo conscientes de que se ha de tratar de un instrumento que debe responder a las necesidades reales de la Administración, y por tanto, susceptible de modificación, se ha de reconsiderar el actual marco normativo por cuanto que, aunque este se encuentre fragmentado y desubicado unitariamente, existe un conjunto de normas legales al respecto que habrá de cumplirse.**

*Egungo arauek LPZ onartzeko eskumena eta, ondorioz, hori aldatzekoa Udalari ematen diote Udalbatzarraren bitartez, hala ezartzen baitu TJOALen 22.2 artikuluaren i) atalak, eta eskuduntza hori ezin daiteke eskuordetu (TJOALen 22.4 artikulua).*

**La regulación actual atribuye la competencia para la aprobación de la RPT y consecuentemente de sus modificaciones al Ayuntamiento constituido en Pleno, en virtud de lo previsto en el art. 22.2.i) LRBRL, sin que tal atribución pueda ser objeto de delegación (art. 22.4 LRBRL).**

*Baina hala eta guztiz ere indarreko legeriak ez du xehetasunez arautzen LPZ onesteko eta aldatzeko berariazko prozedura zehatzik, baina badira maila ezberdineko arauak horretarako izapide eta dokumentu batzuk bakoitza bere aldetik aipatzen dituztenak.*

**Ahora bien, no obstante lo anterior, la normativa vigente no regula de forma detallada un procedimiento específico o concreto para la aprobación y modificación de la RPT, sino que existen diferentes normas de distinto rango que se refieren separadamente a alguno de sus trámites y documentos.**

Código de validación/*Balidazio kodea*
4F50065K4G013B1J11G7

***Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 13. artikuluak ezartzen du lanpostu zerrendak direla Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langile-beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko duten baliabidea.***

**En la CC AA del País Vasco dispone el Art. 13 de la Ley 6/ 1989, de la Función Pública Vasca, las relaciones de puestos de trabajo son el instrumento mediante el cual las Administraciones Públicas vascas racionalizan y ordenan sus estructuras internas, determinan sus necesidades de personal, definen los requisitos para su desempeño y clasifican cada uno de ellos.**

***Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 18. artikuluak agintzen du egitura organikoan egiten diren aldaketak onesteak horiei dagozkien lanpostuen zerrendak ere aldi berean onestea ekarri behar duela, baina, beti ere lanpostu zerrenden bidez sortu, aldatu edo kenduko direla lanpostuak.***

**En la CCAA del País Vasco el Art. 18 de la Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca la aprobación de modificaciones en la estructura orgánica exigirá simultáneamente, la de las correspondientes relaciones de puestos de trabajo, añadiendo que, en todo caso, la creación, modificación o supresión de puestos de trabajo se realizará a través de las Relaciones de Puestos de Trabajo.**

***Garrantzitsua da kontutan izatea beharrezkoa dela, TJOALTBren 126.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, espedientearen hasieran pertsonal saileko buruak, alkatearen edota dagokion ordezkariaren eskariz, txostena edo azterketa egitea. Bertan zehaztasunez jasoko da proposatutako langileen antolaketa, hots, lanpostuen, ordainsariaren, osagarrien, eginkizunen, betetzeko eta sartzeko moduaren deskribapen xehatua.***

**Es importante tener en cuenta que es necesario, por aplicación analógica del art. 126.1 T.R.R.L., el informe o estudio del Jefe del departamento de personal al inicio del expediente a instancia de Alcaldía o mediante providencia de la Delegación correspondiente. Aquél deberá contener de forma precisa la ordenación de personal que se propone, es decir, deberá llevarse a cabo una descripción detallada de los puestos, retribución, complementos, funciones, provisión y acceso.**

***Eta kasu honetan Ermuko Udal Idazkariak dagokion nahitaezko txostena eman du 2020ko apirilaren 17an, eta honako aldaketa-proposamen hau aurkeztu du bertan:***

**El Secretario municipal ha emitido el correspondiente informe preceptivo en fecha 17 de abril de 2020, en el que presenta la siguiente propuesta de modificación:**

***LANPOSTU-ZERRENDAREN ALDAKETAK***

***Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoari jarraituz eta Konstituzioak ematen duen toki-autonomiaren zentzutik eratorritako udal-eskumen eta autoantolaketa-ahalmenarekin bat etorriz, Lanpostu Zerrendan ondorengo aldaketak aurkeztu dira egiteko, udal honetan lan egiten duten langileen plantilla herritarrek administrazio publikoei eskatzen dietenari arin eta modu efektiboan erantzuteko erronka eta beharrizan berriei modu objektibo eta eraginkorragoan apurka-apurka egokituz joateko.***

***Lanpostu-zerrendaren aldaketa 2020 urterako***

***Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 13. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoari jarraituz, 2020 urterako Lanpostu Zerrendaren aldaketa partziala aurkezten da onartzeko eta ondoren argitaratzeko***

***1.- Hirigintza eta Iraunkortasun Arloari atxikitako 305 kodea duen arkitekto lanpostua sortzea, A taldeko A1 azpitaldekoa, zeinaren hornitze-sistema oposizio-lehiaketa librea den, administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoan sailkatua, arkitekturako lizentziatura edo gradua edo baliokidea izan beharko du, C2. hizkuntza-eskakizuna duena eta 2021/12/31ko derrigortasun-data duena, 28. lanpostu-mailako osagarriarekin eta 21.534,10ko berariazko osagarriarekin., eta %100aren dedikazioa edukiko***

**MODIFICACIONES EN LA RPT**

**De conformidad con la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, con las competencias municipales y la capacidad de autoorganización derivada del sentido de la autonomía local consagrada por la Constitución, se presentan estas modificaciones en la Relación de Puestos de Trabajo (en adelante RPT) con el fin de ir acomodando de una manera más objetiva y eficaz la plantilla del personal que realiza su trabajo en este Ayuntamiento a los nuevos retos y necesidades emergentes de dar respuesta rápida y eficiente a las nuevas demandas que presenta la ciudadanía a sus administraciones públicas.**

**Modificación de la relación de puestos de trabajo para el año 2020**

**De conformidad con los artículos 13 y ss. de la Ley 6/1989, de 6 de julio de la Función Pública Vasca se presenta para su aprobación y posterior publicación la modificación parcial de la RPT para el año 2020.**

**1º.- Crear el puesto de Arquitecto con el código 305, Adscrito al Área de Urbanismo y Sostenibilidad, perteneciente al grupo A, subgrupo A1, cuyo sistema de provisión es el concurso-oposición libre, clasificado en la escala de administración especial, subescala técnica, con requisito de Licenciatura o Grado o equivalente en Arquitectura, con perfil lingüístico C2 y fecha de preceptividad 31/12/2021, con complemento de destino 28 y un complemento específico de 21.534,10 con una dedicación del 100%.**

Código de validación/*Balidazio kodea*
4F50065K4G013B1J11G7

***duelarik.***

***2.- Goi-mailako teknikariaren lanpostua sortzea, 113 kodea duena, Zerbitzu Orokorren eta Gobernu Irekiaren Arloari atxikia, A taldeko A1 azpitaldekoa, zeinaren hornidura-sistema oposizio-lehiaketa librea den, administrazio bereziko eskalan sailkatua, azpieskala teknikoan, lizentziatura edo gradua edo baliokidea eskatzen duena, C2 hizkuntza-eskakizuna duena eta 2021/12/31ko derrigortasun-data duena, 28. lanpostu-osagarriarekin eta 21.534,10ko berariazko osagarriarekin, eta %100aren dedikazioa edukiko duelarik.***

**2º.- Crear el puesto de Técnico superior con el código 113., Adscrito al Área de Servicios Generales y Gobierno Abierto, perteneciente al grupo A, subgrupo A1 cuyo sistema de provisión es el concurso-oposición libre, clasificado en la escala de administración especial, subescala técnica, con requisito de Licenciatura o Grado o equivalente, con perfil lingüístico C2 y fecha de preceptividad 31/12/2021, con complemento de destino 28 y un complemento específico de 21.534,10€ con una dedicación del 100%.**

***BIGARREN. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta bai Euskal Autonomi Erkidegoko Gobernuari, bai Estatuko Gobernuaren Ordezkariordetzari bidaltzea.***

**SEGUNDO: Ordenar su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, y su remisión a la Comunidad Autónoma del Gobierno Vasco y a la Subdelegación del Gobierno.**

## 4. *DIRU-LAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRA ALDATZEA*

## 4. MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA GENERAL DE SUBVENCIONES

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 2* | EH Bildu: A favor 2 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 1* | Elkarrekin Ermua: A favor |

***Hirugarren erabakia:***

**Tercer acuerdo:**

***Ermuko Udalak bai aldi berean bai modu izendunean ematen dituen diru-laguntzak kudeatzeko prozedura***

**Analizado el procedimiento de gestión de las diferentes subvenciones que otorga el Ayuntamiento de Ermua, tanto de manera concurrente como**

*aztertuta, eta 2018an Ordenantza Orokorra onartu ondoren, hobetu daitezkeen zenbait alderdi atzeman dira.*

*Hobekuntza horiek egiteko aipatutako ordenantzan, aldaketa txiki batzuk egin behar dira, bai elkarte onuradunentzat, bai kudeatzaileentzat edo izapidegileentzat diru-laguntzen kudeaketa eta izapidetzea errazteko asmoz,. Hori dela eta, ondoko aldaketa hauek proposatzen dira.*

*1. "Diru-laguntzak emateko betekizunak" izeneko 5. artikuluari laugarren puntu bat gehitzea, honela idatzita gelditzen dena::*

*4. Aurreko betekizunez gain, ezinbesteko betekizuna izango da diruz lagundu beharreko proiektuaren xedea, helburua, gauzatzea, jarduera egitea, portaera berezia hartzea, dagoeneko eginda edo garatu gabe, edo egoera bera Ermuko udalerriaren lurralde-eremuan gertatzea.*

*Salbuespenez, diruz lagundutako jarduerak Ermuko udal-mugartea gainditzen badu, zuzenean edo zeharka udal-interesari onura ekarri beharko dio, eta hori, diru-laguntza eman aurretik, behar bezala espedientean justifikatu beharko da, arrazoitutako txosten baten bidez.*

*Betekizun horretatik kanpo geratzen dira garapen bidean dauden herrialdeei arreta emateko aurrekontu-programan aurreikusitako garapen-proiektuetarako laguntzak, bai eta*

**nominativa, tras la aprobación de la Ordenanza General en el año 2018, se han observado algunos aspectos susceptibles de mejora.**

**Estas mejoras requieren la incorporación de pequeñas modificaciones en la citada ordenanza que facilitarán la gestión y tramitación de estas subvenciones, tanto para los colectivos beneficiarios como para las personas gestoras o tramitadoras de las mismas, por lo que se proponen las siguientes modificaciones:**

**1. Que se añada un cuarto punto al Artículo 5 "Requisitos para el otorgamiento de subvenciones", quedando redactado del siguiente modo:**

**4. Además de los requisitos anteriores, será requisito imprescindible que el fin, objetivo, ejecución del proyecto, la realización de la actividad, la adopción del comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de la situación a subvencionar, deberá radicar, en el ámbito territorial del municipio de Ermua.**

**Para el caso excepcional de que la actuación subvencionada exceda del ámbito del término municipal de Ermua, deberá beneficiar al interés municipal de forma directa o indirecta, lo que deberá quedar suficientemente justificado en expediente, mediante informe motivado, con carácter previo a su concesión.**

**Quedan excluidas de este requisito las ayudas a proyectos de desarrollo que se prevea en el programa presupuestario correspondiente de**

Código de validación/*Balidazio kodea*
4F50065K4G013B1J11G7

***udalerria gainditzen duten Ermuko herritarrekin zerikusia duten jarduerak ere.***

***2. Diru-laguntzen justifikazioa izeneko 29. artikuluaren 2. puntua honela idatzita geratzen da:***

***2. Kontuan, osorik edo diru-laguntzaren zati batez finantzatu diren jardueren aitorpena jaso beharko da, bai eta horien kostua ere, egindako gastu eta diru-sarrera guztiak banakatuta. Kontua jarduera egiteko epea amaitu eta hilabeteko epean aurkeztu beharko da.***

***3.. Emakida Kontu-hartzailetzari jakinaraztea, izeneko 38. artikuluaren 1. puntuaren idazkera aldatzea, honela geratzen dena:***

***1. Laguntza edo diru-laguntza emateko ebazpena egin ondoren, eta alderdi interesdunei egin beharreko jakinaraztearekin batera, udaleko kontu-hartzailetzari, 3 eguneko epean egindako emakidaren berri emango zaio, pertsona edo erakunde onuradunen identifikazio-datuak eta ordainketa gauzatzea ahalbidetzen duten gainerako datuak helaraziz.***

***Ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Kontuhartzailetzak 10 eguneko epea izango du ordainketa eraginkorra egiteko,.***

**atención a países en desarrollo así como actividades relacionadas con ciudadanos de Ermua cuyo ámbito exceda el término municipal.**

**2. Que el Artículo 29. Justificación de las subvenciones quede redactado del siguiente modo en su punto 2:**

**2. La cuenta deberá incluir declaración de las actividades realizadas que han sido financiadas total o parcialmente con la subvención y su coste, con el desglose de cada uno de los gastos incurridos e ingresos efectuados, y su presentación se realizará en el plazo de un mes desde la finalización del plazo para la realización de la actividad.**

**3. Que el Artículo 38. Comunicación de la concesión a Intervención, modifique la redacción del punto 1 en los siguientes términos:**

**1. Una vez adoptada la resolución de concesión de la ayuda o subvención y simultáneamente a su notificación a las partes interesadas, se pondrá en conocimiento de la Intervención municipal en el plazo de 3 días la concesión practicada, a fin de darle traslado de los datos de identificación de las personas o entidades beneficiarias y aquellos otros que permitan la materialización del pago.**

**La intervención dispondrá de un plazo máximo de 10 días contados a partir del día siguiente al de la comunicación de la resolución para la realización del pago efectivo.**

*4. Diru-laguntzaren ordainketa izeneko 39. artikuluaren 2. puntua aldatzea, honela geratzen dena:*

**4. Que el Artículo 39. Pago de la subvención se modifique el punto 2 del siguiente modo:**

*:2. Diru-laguntza izendunen laguntza ordainketa bakarrean %eko 100ean ordainduko da, eta horiek arautzen dituen hitzarmenean edo oinarriek hala ezartzen dutenetan jaso beharko da.*

**2. Se abonarán en un único pago, el 100% de la ayuda o subvención en las subvenciones nominativas, que deberá recogerse en el convenio que las regule o en aquéllas que así lo establezcan las bases.**

5. ***DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEA***

5. **MODIFICACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES**

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 2* | EH Bildu: A favor 2 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 1* | Elkarrekin Ermua: A favor 1 |

***Laugarren erabakia:***

*COVID-19 pandemiaren hedapenak eragindako osasun eta ekonomia-krisiaren une honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da gure industria- eta gizarte-ehunarekiko konpromisoa eta laguntza eskaintzea. Hori dela eta, Ermuko Udalak hainbat neurri abiarazi ditu pandemiak udalerriko enpresa eta familietan eragin dituen ondorio ekonomikoak arintzen saiatzeko asmoz.*

*Proposatutako neurrien artean diru-laguntza eta laguntzatarako lerro berriak sortzea eta jada onartuta zeuden hainbat*

**Cuarto acuerdo:**

**En este momento de crisis sanitaria y económica derivada de la extensión de la pandemia del COVID-19, es más importante que nunca el compromiso y apoyo a nuestro tejido industrial y social y es por ello, que el Ayuntamiento de Ermua pone en marcha una serie de medidas que tratan de amortiguar los efectos económicos de la pandemia para las empresas y familias del municipio.**

**Entre el conjunto de medidas propuestas están la creación de nuevas líneas de subvención y ayudas y el**

***diru-laguntzetarako lerroetan aurrekontu partidak handitzea jasotzen dira.***

***Diru-laguntzen plan estrategikoan islatu behar diren aldaketa horiek honako hauek dira:***

***2020. URTERAKO AURREIKUSITAKO DIRU-LAGUNTZETAKO, I. ERANSKINEAN, abian jarri nahi diren hurrengo laguntza-lerro berriak sartu dira:***

- ***Familia behartsuentzako eta adinekoentzako edo mendekotasuna duten pertsonentzako laguntzak, etxebizitzak Internetera konektatzeko, udaleko zuntz optikoaren sarearen bidez: 20.000 €***
- ***Internetera Udal zuntz optikoko sarearen bidez konektatzeko merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduentzako laguntzak: 30.000€***
- ***Jarduerareren gastu orokorrak ordaintzeko merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduentzako laguntzak: 120.000€***
- ***Espazioen alokairua ordaintzeko Izarra Centren dauden enpresa eta pertsona autonomoentzako laguntzak:55.000€***
- ***Eskolarako materiala erosteko 2 eta 16 urte bitarteko haurrak dituzten familientzako laguntzak.***
- ***Eskolarako materiala erosteko 16 eta -25 urte bitarteko ikasleentzako laguntzak: 50.000€***

**incremento de partidas presupuestarias en algunas líneas de subvención que ya estaban aprobadas.**

**Estas modificaciones han de tener su reflejo en el plan estratégico de subvenciones y son las que a continuación detallamos:**

**En el ANEXO I. SUBVENCIONES PREVISTAS ÚNICAMENTE PARA EL AÑO 2020, se han incorporado las nuevas líneas de ayudas que se propone poner en marcha:**

- **Ayudas a familias desfavorecidas y a personas mayores o dependientes para conexión de los domicilios a internet a través de la red de fibra óptica municipal: 20.000€**
- **Ayudas a establecimientos comerciales y hosteleros para la conexión de los establecimientos a internet a través de la red de fibra óptica municipal: 30.000€**
- **Ayudas a establecimientos comerciales y hosteleros para sufragar los gastos generales de la actividad: 120.000€**
- **Ayudas a empresas y personas autónomas ubicadas en Izarra Centre para el pago del alquiler de los espacios: 55.000€**
- **Ayudas a familias con niños/as de 2 hasta 16 años para la compra de material escolar. 110.000€**
- **Ayudas a estudiantes de 16 a 25 años para la compra de material escolar:50.000€**

***Horretaz gain, dagoeneko esleitutako zenbatekoa handitzea proposatzen den diru-laguntza lerroak honako hauek dira:***

- ***Gizarte-larrialdietarako laguntzak, non aurrekontua 250.000 eurokoa izatetik, 350.000 eurokoa izatera pasa den..***
- ***Merkataritza, ostalaritza eta turismoa dinamizatzeko diru-laguntza, non aurrekontua 18.000 eurokoa izatetik eta 60.000 eurokoa izatera pasa den.***

**Además, las líneas de subvención en las que se propone aumentar la cantidad asignada son las siguientes:**

- **Ayudas de emergencia social, donde el presupuesto pasa de ser 250.000 euros a 350.000 euros**
- **Dinamización del comercio, hostelería y turismo, donde el presupuesto pasa de ser 18.000 euros a 60.000 euros.**

## 6. *MUSIKA ESKOLAKO HITZARMENAREN ALDAKETA*

## 6. MODIFICACIÓN DEL CONVENIO DE LA ESCUELA DE MÚSICA

| ***BOZKETAREN EMAITZA*** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN** |
|---|---|
| *PSE-EE/PSOE: Aldekoak 7* | PSE-EE/PSOE: A favor 7 |
| *EH Bildu: Aldekoak 2* | EH Bildu: A favor 2 |
| *EAJ/PNV: Aldekoak 4* | EAJ/PNV: A favor 4 |
| *PP: Aldekoak 1* | PP: A favor 1 |
| *Elkarrekin Ermua: Aldekoak 1* | Elkarrekin Ermua: A favor 1 |

***Bosgarren erabakia:***

***Udalaren eta Kaltxango Musikalaren arteko hitzarmena da Ermuko herritarren musika-ikaskuntza bultzatzeko jarduerak finantzatzera eta musika ikasten duten pertsonek udalerriko herri-ekitaldietan parte hartzea sustatzera bideratzen den diru-laguntza arautzeko oinarria.***

***Udalaren diru-laguntzen ordenantza orokorra aldatzeko proposamena kontuan***

**Quinto acuerdo:**

**El convenio entre el Ayuntamiento y la Asociación Kaltxango musical es el que sirve de base para regular la subvención que se destina a financiar la realización de actividades para favorecer el aprendizaje musical de la ciudadanía de Ermua y a fomentar la participación de las personas que aprenden música en los eventos populares del municipio.**

**Teniendo en cuenta la propuesta de modificación de la ordenanza general de**

Código de validación/*Balidazio kodea*
4F50065K4G013B1J11G7

***hartuta, hitzarmenaren edukia, ordainketari dagokion atalean, diru-laguntzen ordenantzaren idazketa berri horretara egokitu nahi dugu,***

**subvenciones del Ayuntamiento, queremos adecuar el contenido del convenio a esa nueva redacción de la ordenanza general de subvenciones en lo que se refiere al pago de la misma.**

***Orain arte, diru-laguntza ebatzi ondoren, zenbatekoaren % 60a ordaintzen zen, eta urtearen amaieran, egindako jardueraren justifikazioa jaso eta gero, gainerako % 40a.***

**Hasta ahora, tras la concesión de la subvención se procedía al pago del 60% del importe concedido y al final del año, con la justificación de la actividad desarrollada, se procedía al pago del 40% restante.**

***Beraz, honako hau aldatzea proposatzen da:***

**Por lo que se propone modificar lo siguiente:**

***- Diru-laguntzaren zenbatekoaren %100a diru-laguntza ebazten den unean bertan ordaintzea.***

**- Que el pago del 100% del importe de la subvención se haga en el mismo momento de la concesión de la misma.**

***- Hitzarmenean klausula berri bat sartzea, HAMASEIGARREN klausula-Hitzarmenaren betearazpenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoak, jarduerak hitzarmenaren baldintzetan betetzen direla jarraipen sistematikoa egiten dela bermatzeko***

**- Incluir una nueva cláusula en el convenio, la cláusula DÉCIMO SEXTA-Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes, para garantizar que se da un seguimiento sistemático del cumplimiento de las actividades de los términos del convenio.**

***Horren guztiaren berri eman da, dagozkion ondorioak izan ditzan.***

**Se informa de todo ello para que produzca los efectos oportunos.**

*Bilkura honetan aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkateak bilkura bukatutzat jo du 11:30ean, eta nik, Idazkaria naizenez, guztiaren fede eman dut.*

No habiendo más asuntos a tratar, de orden del Alcalde se da por finalizada la sesión, levantándose la misma a las 11:30 del día de la fecha de todo lo cual como Secretario doy fe.

*Akta honek zazpi orri dauzka alde bietatik idatzita eta 131etik 144ra zenbakituta.*

Consta esta acta de siete folios, escritos por ambas caras, numerada/s del 131 al 144.

Fdo./Sin.:
Alcalde/Alkatea
Juan Carlos Abascal Candás
12-05-2020 14:09

Fdo./Sin.:
Secretario/Idazkaria
Daniel Salazar Irusta
08-05-2020 13:24